

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak Hitzarmena erantzukizun eta elkartasuneko tresna modura defendatu du Madrilen

*Errealitate anitza eta askotarikoa ordezkatzeko duen Gobernuak Nafarroan eragindako aldaketa azpimarratu du, bai eta bizikidetzaren alde egindako apustua ere*

Martes, 20 de octubre de 2015

Barkos Lehendakariak Madrilgo Europa Press-en Gosarrietan esku hartu du gaur goizean, eta bertan Hitzarmen Ekonomikoa "erantzukizun eta elkartasuneko tresna baten" modura definitu du, eta haren indarraldia nahiz gaurkotasuna defendatu ditu.

Lehendakariaren aburuz, Hitzarmen Legearen garapena "funtsezko elementua da autogobernuaren garapenean, eta buru naizen Foru Gobernu hau Hitzarmen Lege horrekin erabat konprometitu dago". Hari buruz esan du, Europako eskualdeko partaidetzazko eredu bat dela.

Bestalde, Nafarroaren errealitate anitza eta askotarikoa ordezkatzeko duen Gobernu honek Nafarroan eragin duen aldaketa azpimarratu du, eta aldaketa horren helburua bizikidetzaren normaltasuna finkatzea dela.

Uxue Barkosek gogora ekarri duenez, Nafarroak estatuko kargei egindako ekarpena Nafarroako BPGd-ak kopuru guztiari ehuneko 1,6ko indizea aplikatuz egiten da, "gure biztanleriari lotutako 1,4ko indizea aplikatu beharrean". Gainera, "krisi-urteetan, Nafarroak Estatuari egindako ekarpena ehuneko 20 igo da; 2008an, 490 milioi ziren, eta 590 aurten", hau da, Nafarroako aurrekontuen % 18. "Eta are gehiago- azaldu du Lehendakariak: onartu gabeko karga orokorren artean, Nafarroak, nire Gobernuaren iritziz, onartu behar ez zituenak daude, Estatuako zor guztien interesari buruzkoa, esaterako".

Ardatz atlantikoan, Akitania eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin euroeskualdearen bidez lan egiteko erabakia erakutsi ondoren, Barkos Lehendakariak ziurtatu du bere Gobernuak "Nafarroa Europako definizio politikoan kokatzea bilatzen duela ere, ondoen definitzen eta ekarpen gehien egin dezakegun arloetan oinarrituz, hau da, gure indarguneetan, gure sektore estrategikoak diren energia berriztagarri, nekazaritza, osasun eta hezkuntzan, hain zuzen".

Bere [agerraldian](#), Uxue Barkosek ziurtatu du ere, bere gobernuaren



Barkos Lehendakaria Europa Press-en Gosarrietan.

lehen helburu estrategikoa "Nafarroa talentu onena erakartzeko lurralde bihurtzea dela hezkuntzan eta osasun-alorrean lan egiteko".

### **Aldaketaren Gobernu**

Bere agerraldiaren hasieran, Barkos Lehendakariak baieztatu du Nafarroan oraingoan aldatu dena gehiengoan arteko oreka dela, "eta, hala, azken hauteskunderetan hautetsontziek utzi ziguten mandatua aldatetaren gobernu batena da".

Uxue Barkosen iritziz, "Gobernu honek Nafarroaren errealitate anitza eta askotarikoa ordezkatzen du, hamarkadetan zehar isilarazita eta ezkutatuta izan dena Estatuko gainerako lekuen begietara", Alde horretatik, "duela mende askotatik Nafarroak duen konplexutasun aberatsa" nabarmendu du, "eta gaur, bizi-baldintzen nahiz herritarren iritzien bidez elkarrekin bizitzeko ahalegina egin behar dugu handik bere bertute eta aukera onenak ateratzeko. Hori da, beraz, buru naizen Gobernu honen helburu nagusia: Nafarroako bizikidetzaren normaltasunez finkatzeko gobernu izatea".

Uxue Barkosek garatutako beste kapitulu bat krisiaren aurrean dauden aukerei buruzkoa da. Haren ustez, egungo egoeran "Nafarroak aniztasunaren bere profila aberastasun-gordailu bihurtu behar du etorkizunari aurre egiteko"; izan ere, adierazi duenez, "mundu-mailan abangoardiakoak diren sektore estrategikoak ditugu –energia berriztagarriak edo nekazaritzako elikagaien sektorea–, eta nazioarteko merkatu guztietan industria-markaren identitate bat sortzeko gaitasuna izan behar dute".

"Nafarroa talentu onena erakartzeko lurralde bihurtzea hezkuntzan nahiz osasunean lan egiteko; horixe da, hain zuzen, nire Gobernuaren lehen helburu estrategikoa", esan du aurrerago Lehendakariak. Hark adierazi duenez, "lehen urratsak egin dira mugitzen den kokaleku eta ingurunean gure ekonomiaren garapen hobea bermatzeko". Alde horretatik, aurreratu du Foru Komunitateak "hilabete honetan bertan Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Akitaniarekin partekatutako euroeskualdean berriz sartzeko prozesuari ekingo diola", eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin hasitako elkarriketa gogora ekarri du.

